

Euskararen Kontseilu Sektoriala - Ohiko Bilkura -

Data eta lekua:	2019ko urriaren 22an Udaletxeko Tokiko Gobernu Batzarraren Gela
Hasiera eta amaiera ordua:	17:30-19:30

BERTARATUAK:

Talde politikoak:

LEHENDAKARIA: Jon Insausti_EUSKARAKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA
Eneka Alvarez_EH BILDU
Miren Azkarate_EAJ
Ane Oyarbide_PSE-EE
Mikel Lezama_PP

Elkarteak, Hiritarrak eta Gizarte-ospe bereziko pertsona edo kolektiboak:

Zuriñe Gonzalez_BAGERA ELKARTEA
Luis Mari Ralla_BIZARRAIN ELKARTEA
Mikel Aiestaran_GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA
Maite Asensio_URTXINTXA
Oihana San Jose_AEK
Jexux Arrizabalaga_BATZEN
Andoni Iraola_REALA

Euskara Zerbitzuaren langileak:

IDAZKARIA: Edurne Otamendi (Zerbitzuaren burua)
Alex Aisa (Hiriko Hzkuntza Normalkuntzarako Atalaren burua)

Herri Partaidetza saila:

Olatz Mujika (Teknikaria)

Kide berria:

Eneritz Arrillaga_IRUTXULOKO HITZA

Beste:

Juanjo Ruiz (Emun Aholkularitza)
Itziar Urteaga (Emun Aholkularitza)

EZ DIRA BERTARATU:

Juantxo Iturria_ELKARREKIN DONOSTIA
Antoni Casado_EHUko ordezkaria
Iñigo García_SHOPSS
Josune Otxotorena_BERRITZEGUNEA (ezin etorria adierazi du)
Jose Jabier Murua_EUSKADIKO KUTXA (ezin etorria adierazi du)
Idoia Elurbe_KUTXABANK (ezin etorria adierazi du)

1.- Aurreko bileraren akta onartzea

Aurreko agintaldian Kontseiluko kide zirenek aurreko bileraren akta onartu dute.

2. Azken urteetan Euskararen Kontseilu Sektorialean parte hartu ez duten kideen parte hartzea bertan behera uztea

Kontseiluaren idazkariak jakinarazi du, agintaldi berrirako Kontseilua osatzeko prozesuan, kide guztiei parte hartzen jarraitu nahi duten galdetzeaz gain, Ulia Auzo Elkarteari eta LAB sindikatuari adierazi zaiela baiezkorik ematen ez badute bere kide izaera bertan behera geratuko dela Euskararen Aholku Kontseiluaren arauen 10. artikuluari jarraiki, izan ere, bi entitate hauen ordezkariak Kontseilua eratu zenean izena eman zuten baina ez dira inoiz bileretara bertaratu ezta ezin etorria adierazi ere.

Beraz, indarrean dauden arauak jarraituz, lehendakariak bi entitate hauen kide izatea bertan behera geratzen dela jakinarazi du.

3. Euskararen Kontseilu Sektorialaren osoko bilkura onartzea

Osoko bilkura eratu baino lehen lehendakariak jakinarazi du Irutxuloko hitzak entitate gisa Euskararen Kontseilu Sektorialean parte hartzeko eskabidea egin duela eta, prozedura jarraituz, idazkariaren txostena egin eta gero entitate hau kide gisa ontzat ematen duen proposamena helarazten duela.

Ontzat eman dute kide guztiek.

4. Euskararen Kontseilu Sektorialaren Batzorde Iraunkorraren osaera onartzea

Batzorde Iraunkorraren funtzioak aztertu eta finkatu behar direla eta, erabaki da hurrengo saioan zehaztea zeintzuk izango diren funtzioak eta horren ondoren Batzorde Iraunkorra osatzea.

5.- Euskararen Kontseilu Sektorialaren lehendakariordea aukeratzea

Kontseiluaren lehendakariordea izateko norbaitek bere burua aurkeztu nahi duen galdetu da. Beste inor aurkeztu ez delarik, Bagerako ordezkaria prest agertu da berriz ere lehendakariorde izateko. Horrela bada, Bagerako ordezkari Zuriñe Gonzalez izendatu da Euskararen Kontseilu Sektorialeko lehendakariorde.

6. 2020-2024 epealdirako Donostiako Euskararen Plan Orokorra berrikusteko saioa

Donostiako Euskararen Plan Orokorra berrikusi eta berria egiteko aholkulari lanetan ari diren Emun Aholkularitza enpresako Juanjo Ruiz eta Itziar Urteagak gidatu dute saioa.

Hemen, labur-labur, ariketan jasotako ekarpen nagusiak:

Diagnostikoa osatu: BERRIKUNTZA MATRIZEAK

Hainbat arloko berrikuntza matrizeak ikusteko eta irakurtzeko aukera izan da eta honako ideiekin osatu da:

HEDABIDEAK: Euskal hedabideen ikusgarritasunean lagundu (INDARTU)



SENTSIBILIZAZIOA, MOTIBAZIOA ETA ZABALKUNDEA: "Egunean behin" bezalako APPak garatu (BERRITU), gazteen artean sentsibilizazio kanpainak antolatu eta sustatu auzoetako euskara taldeak oinarri eta bultzatzaile hartu horretarako (BERRITU)

AISIALDIA ETA KIROLA: Festan Blai (*) (MANTENDU)

(*) Festan Blai ekimena iazko urtean ez zela egin galdetu du Bagerako ordezkariak. Edurnek komentatu du euskaratik antolatutako ekintzak izatea bilatzen dela Euskara Zerbitzutik, eta Festan Blai-k ez zuela ondo betetzen bere helburua. Hala ere, aztertu beharko da aurrera begira jarraituko den ekimen honekin.

Aurrera begirako erronkak irudikatu

Donostiako kaleko hizkuntza paisaia euskarak lehentasuna irabazi du

- Udalean jasotako herritarren kexak kontuan hartuta eta Udalak izandako borondateari esker orain arteko arazoari irtenbidea eman zaio.
- Ondorioz, gertaera honek erabilera gora egingo dela aurreikusten da

Helburuak/ekintzak:

Udal ordenantzan jasota datozen neurriak betetzeko bitartekoak jartzea.

Irizpideak betetzen direla ziurtatzeko jarraipena egitea

Euskara ikastea doakoa da

- Donostiako Udalak Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren elkarlanari esker jakinari du euskalduntzea doakoa izango dela 2021etik aurrera.
- 10-15 urte bitarteko etorkinentzat doako ikastaroak antolatu dira eskolan ikasitakoa indartzeko.

Helburuak/ekintzak:

Hitzarmena edo akordioak lotzea Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.

Haur etorkinen euskalduntzea ziurtatzea: doako ikastaroak antolatzea eskolan ikasitakoa indartzeko.

Euskara ostalaritzan indarberritua bost urteko ibilbidearen ondoren

- Euskara "ERRAZA DA" egitasmoa Donostiako 6 auzoetara hedatu da
- Merkataritza eta ostalaritzan ere euskaraz kanpaina % 10 igo da azken urtetan

Helburuak/ekintzak:

"ERRAZA DA" egitasmoa Donostiako 5 auzoetara hedatzea eta euskararen ezagutza eta erabilera handitzea

Udako kirol eskaintza guztia lehen aldiz euskaraz eskaini da.

- Monitoreek euskaraz egingo dute saio guztietan

Helburuak/ekintzak:

Euskara Zerbitzua eta KIROL Patronatuaren arteko koordinazioa

Kirol elkarteei euskarazko formakuntza eskaintzea, bereziki monitore eta entrenatzaileei.

Erraztasunak eskaintzea: ordutegietan eta taldeak osatzerakoan taldeak txikiagoak izatea.

Euskarazko kirol eskaintza agortuta

- Euskarazko eskaintzak goraka egin badu ere, eskaria handiagoa izan da.
- Gero eta gehiago dira aisialdia euskaraz gozatu nahi dutenak.

Helburuak/ekintzak:

Kirol eskaintza euskalduntzeko formazioa eta baliabideak eskaintzea

Euskarazko eskaintza handitzea.

Aisialdian erabilera handitzea

Aurtengo Euskaraldian Altzako % 10a BELARRIPREST.

Helburua/ekintzak:

Ulermen mailak gora egitea (XX)

Erdaldunei zuzendutako ikastaroak Altzan bertan



► Euskara

Altzako institutuan ipuin lehiaketa antolatu eta sentsibilizazioan gora egitea.
Etorkinekin mintzapraktikak antolatzea
Belarripresten rola indartzea

Eta horrela, bilera bukatutzat eman da 19:30ean.